AYUNTAMIENTO DE ERMUA/ERMUKO UDALA
REGISTRO GENERAL/ERREGISTRO OROKORRA
ENTRADA/SARRERA
Fecha/Data 13-12-16 14:19:12
Num. [illegible]

**TTIPARI BURUZKO MOZIOEN AURREAN EAJ-PNVREN PROPOSAMENA**

ERMU ko udalak bat egiten dau Eusko Legebiltzarrak 2015eko ekainaren 11an adosturako ondoko akordioarekin:

1. Eusko Legebiltzarrak Europako Batzordeari eskatzen dio bermatu dezala beharrezko gardentasuna TTIP Ameriketako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko Inbertsio eta Merkataritzako Elkarteari buruzko tratatuaren negoziazio-prozesuan.

2. Irizten dio TTIP Ameriketako Estatu Batuen eta Europar Batasunaren arteko Inbertsio eta Merkataritzako Elkarteari buruz egiten ari diren negoziazioek defendatu egin behar dituztela industriaren eta Europako hainbat sektore ekonomikoren interesak eta lehiakortasuna. Horretarako, babes-maila altua bermatuko die kontsumitzaileei, haien datuei, osasunari eta segurtasunari, eta ekidin egingo ditu dumping soziala, laborala, fiskala eta ingurumenekoa, gizarte-ongizaterako europar ereduaren etorkizuneko jasangarritasuna babestuz.

3. Europako Parlamentuari eskatzen dio TTIP edo beste edozein trataturen berrespena baldintzatu dezala europar kalitate-estandarrak eta OIT Lanaren Nazioarteko Erakundearen xedapenen markoko eskubide laboralak errespetatzera eta herritarrentzako zerbitzu publiko eta sozialak babestera, eta orobat interes publikoaren defentsan arautzeko eskubide demokratikoa zaintzera.

4. Espainiar Estatuko Gobernuari eskatzen dio bere aldetik konprometitu dadila gardentasunarekin, debateak bultzatuz maila guztietan, eta, Euskadiko Autonomia Estatutuko 20.5 artikuluaren arabera, Eusko Jaurlaritzari tratatu horren sortze-prozesuaren berri eman diezaiola, bere edukiak Euskadiko interes bereziko gaiei eragiten dien neurrian, eta, aldi berean, horretarako ekin diezaiola erakunde arteko elkarrizketa-prozesu bati.

5. Instituzioei, unibertsitateei, komunikabideei eta gizarte zibilari oro har proposatzen die ekitaldiak eta ekimenak antolatu ditzatela, euskal gizarteak errazago ezagutu ditzan, berdintasunetik eta analisi zorrotzetik, TTIPk dituen edukiak eta izan ditzakeen ondorioak".

EAJ - PNV Ermua

Jol Gisasola

Edificio Batzoki
Izelaieta, 3
48260 Ermua (Bizkaia)
Tf: +34 943 03 01 10

**PROPUESTA DE EAJ-PNV ANTE LAS MOCIONES SOBRE EL TTIP**

El Ayuntamiento de ERMUA se adhiere al siguiente acuerdo del Parlamento Vasco adoptado el 11 de junio de 2015:

"1. Insta a la Comisión Europea a que garantice la debida transparencia durante todo el proceso de negociación del tratado sobre la Asociación Transatlántica de Comercio e Inversión (ATCI) entre la Unión Europea y los Estados Unidos.

2. Considera que las negociaciones en curso sobre dicha Asociación Transatlántica de Comercio e Inversión (ATCI) deben defender los intereses y la competitividad de la industria y del conjunto de los diversos sectores económicos europeos, garantizando un elevado nivel de protección de los consumidores, sus datos, su salud y seguridad, y evitando el llamado dumping social, laboral, fiscal y medioambiental, protegiendo la futura sostenibilidad del llamado modelo europeo de bienestar social.

3. Insta al Parlamento Europeo a supeditar la ratificación del ATCI, así como de cualquier otro tratado, al respeto de los estándares de calidad europeos y de los derechos laborales en el marco de las disposiciones de la Organización Internacional del Trabajo (OIT) y a la protección de los servicios públicos y sociales para los ciudadanos, así como a la salvaguarda del derecho democrático de regulación en defensa del interés público.

4. Insta al Gobierno del Estado español a que a su vez se comprometa también con la transparencia, propiciando debates a todos los niveles, y a que, conforme al artículo 20.5 del Estatuto de Autonomía del País Vasco, informe al Gobierno Vasco del proceso de elaboración de dicho tratado, en tanto en cuanto su contenido afecta a materias de específico interés para el País Vasco, y, al mismo tiempo, proceda a abrir un proceso de diálogo interinstitucional al respecto.

5. Propone a las instituciones, universidades, medios de comunicación y a la sociedad civil en general la organización de actos e iniciativas que faciliten el conocimiento, desde la igualdad y el análisis riguroso, de la ciudadanía vasca sobre los contenidos y las posibles implicaciones del ATCI".

EAJ-PNV Ermua

Jol Gisasda

Edificio Batzoki
Izelaieta, 3
48260 Ermua (Bizkaia)
Tf: +34 943 03 01 10